



Zaldibiako Udala

2020DKOR0007

Imanol Lasa Diputatu agurgarria,

Idatzi honen bidez zuregana zuzentzen naiz gure herrian, Zaldibian, apirilaren 24an izan genuen euri erauntsiak eragindako kalteak direla eta.

Egun hartan eta hurrengoetan herritarrek, udal langileek eta Foru Aldundiko Errepideetako langileek izandako erreakzio azkarrari esker, kalteak asko murriztu ziren eta herriko bideetan pasabidea bermatu zen uneoro, gaur egun kalte guztiak konponduta daudelarik, jaso dituzuen txostenetan ziurtatu dezakezularik.

Gaur jaso dugu pasa den asteartean Diputatuen Kontseiluan hartu duzuen erabakiaren jakinarazpena.

Hasteko eskertu nahi dut emango diguzuen laguntza. Ondo ezagutzen duzu Gipuzkoako herri txikien eta udalen egoera, eta badakizu halako gertaerek izaten duten eragina urteko udal aurrekontuan. Are gehiago, aurten, gure diru-sarrerera nagusia den foro funtsa %20 murriztu zaigunean.

Bigarrenik, badakit askotan komunikazioa eta tramite administratiboak ez direla bat etortzen, baina nire lekutik bizitakoa jakinarazi nahi dizut hurrengo batean ahal dela errepikatu ez dadin. Zaldibiako Udalak gaurko egunez jaso du erabakiaren jakinarazpena, ekainak 4. Komunikabideetatik, ordea, maiatzaren 27an zabaldu zen diru-laguntzaren albistea.

Pentsa dezakezu, beraz, aurrez Udalari berri eman ez izanak eragin digun ezinegona, gehiago aurrekontuak hain estu dauden garaian, guretzako halako datuak izatea hain garrantzitsua den unean. Besterik gabe adierazi nahi nizun, ahal dela hurrengoan kontuan izateko.

Esan bezala, lan guztiak burututa daude eta berehala ekingo diogu diru-laguntzaren justifikaziorako tramiteei.

Jaso gure eskerra berriro eta nahi duzunera arte,

Alkatea

<b>Kodea</b>	J 20/0049	<b>Udala</b>	ZALDIBIA
<b>URL</b>	<a href="https://munigex.net/r/eu/78/AAAAAWTH.CsRy">https://munigex.net/r/eu/78/AAAAAWTH.CsRy</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu.			

